

EH: «Ez da posible Estatuak bere burua epaitzea»

«Indar armatuek, lehen bezala orain ere, gerra egiten» jarraitzen dutela dio

Aitziber Iartza / Donostia

EHko hainbat hautetsi eta kidek kontzentrazioa egin zuten atzo Cumbre jauregiaren aurrean. Helburua Lasa-Zabala auzia salatzea eta indar armatuek alde egin dezaten eskatzea izan zen. Hitlerrek Gestapo epaitzearekin parekatu zuen Joseba Permachek epaiketa.

ALDE HEMENDIK lelopean, elkarretaratzea egin zuen atzo EHk Donostian, Cumbre jauregiaren aurrean, non Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahituta eduki baitzituzten. «Euskal Herriak jakin badaki horrelako eraikinetan eta kuarteletan zenbaterainoko krudeltasuna erakutsi duten Espainiako indar armatuek. Halako kasu bategatik

Madrilen egiten ari den epaiketa fartsa bat da, estatu batek bere buruari epaiketa egitea ez baita posible. Bere garaian Estatuak erabaki zuen GAL martxan jartzea, beraz, Espainiako Estatu ez da inor eta ez du gaitasunik justizian oinarrituriko epaiketa egiteko», esan zuen Joseba Permachek. Hala, epaiketa Hitlerren garaian



AMAIA ZABALO

EHko hainbat hautetsi eta kidek Donostiako Cumbre jauregiaren aurrean kontzentrazioa egin zuten atzo.

erregimenak berak Gestapori epaiketa egitearekin alderatu zuen, hori posible ez dela gaineratuz. «Benetan jarrera faxistak erakusten dituen estatu bat ez dugu gai ikusten jarrera faxista horiek aplikatu dituztenei epaiketa

egiteko», esan zuen Permach EHko eledunak.

Permachek esan zuenez, «indar armatuak gerra egitera etorri ziren, eta horretan jarraitzen dute». Horren aurrean, Euskal Herrian zabaldu prozesu politikoak

aurrera egiteko, indar armatuek alde egin behar dutela esan zuen, eta «Espainia eta Frantziarekin eteteko» deia egin zuen, eta lehen aukera martxoko hauteskundeetan abstenitzea dela nabarmendu.